

Kursaalean burutu da Euskadin egindako Lehen Nazioarteko Sagardo Azoka



Azaroaren 24 eta 25ean Kursaalean Euskadin egin den lehen Nazioarteko Sagardo Azoka antolatu zen.

DONOSTIAKO KURSAAL JAUREGIAK EUSKADIN egindako lehen Nazioarteko Sagardo Azoka hartu zuen joan den azaroaren 24an eta 25ean. III. Sagardo Forumaren baitan dagoen ekitaldi berri bat izan zen hura.

Bi eguneko iraupena izan zuen azokak eta bi publiko motari bideratuta zegoen. Alde batetik, igandean, azaroaren 24an, publiko orokorrarentzat irekia zegoen ekitaldia eta sarrerak 10€-ko

prezioa zuen. Astelehenean, aldiz, profesionali zuzenduta zegoen egitaraua.

Mota askotako sagardoak

Azokaren lehenengo edizio honetan bertako, Espainiako eta atzerriko hainbat erakusketarik hartu zuten parte, bai sagardogileak eta bai hainbat sagar ekoizlek, besteak beste. Izotz sagardoa, zapore ezberdinetakoa, lupulatutakoa edo apfelwine sagardoak dastatzeko parada

izan zen, adibidez. Horrela, nazioartean fruta honekin egiten diren edarien bertso anitz probatu ahal izan ziren Kursaalean. Halaber, erakusketariak nahiz euren ekoizpen bideak ezagutzeko aukera izan zuten bertaratuek.

Euskal Sagardoa jatorri-deitura duten zortzi sagardogilek ere hartu zuten parte azokan: Alorrenea (Astigarraga), Astarbe (Astigarraga), Gartziategi (Astigarraga),

Gurutzeta (Astigarraga), Isastegi (Tolosa), Kuartango (Kuartango), Petritegi (Astigarraga), Zapiain (Astigarraga) eta Zelaia (Hernani), hain zuzen ere.

Nazioarteko Sagardo Azoka Sagardoaren Lurraldeak antolatu zuen sagararren, sagardoaren eta fruta horretatik eratorritako gai-nontzeko produktuen turismoa eta kultura zabaltzeko xedez.